




# ZE BARRI?

URLATIK • LANDETARA



3. Alea 1996ko Azaroa



## UDAZKEN KULTURALA EKINTZAZ GAINEZKA



ESKORIATZAKO  
UDALA  
Euskara Batzordea

### Euskara ikasteko dirulaguntza

- \* GURASO TALDEA MARTXAN DA, eta taldean dagoen bakoitzari materialean ordainketa egiteko dirulaguntza emango zaio.
- \* 96/97 ikasturtean euskara ikaste dabiltzanei matrikularen %80a itzuliko zaie.
- \* Barnetegi eta ikastaro trinkoetarako ere matrikularen %80ko dirulaguntzak.
- \* Informazio zehatzago Udaletxean.



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

Eskoriatza

Udaletxea 714407  
 Udal Bulegoak 714532  
 Udaltzaingoa 714407  
 Euskaltegia 792168  
 Kultur-Etxea 714688  
 Gizarte-Laguntzailea 714688  
 Kiroletxea 715328  
 Liburutegia 714688  
 Luis Eceiza 714938  
 Almen 714964  
 Museo-Eskola 714688  
 Ze Barri 714077  
 Talde Antimilitarista 715028  
 Irakasle Eskola 714157  
 Osakidetza 714452  
 Telesko 714917  
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300  
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76  
 Ertzaintza (Arrasate) 797199  
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800  
 Renfe (Zumarraga) 721515  
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030  
 Pesa (Arrasate) 791419  
 Larrialdiak (Arrasate) 771043  
 SOS Deiak 088

**IGOR LAZKANO ARANA**

(Gorosarri dantza taldeko partaidea)

**Noiz hasi zinen dantza taldean?**

Orain dela 3 urte.

**Zenbat partaide zarete?**

60 eta 80 tartean.

**Zein herrialdetako dantzak dantzatzen dituzue?**

Batez ere Gipuzkoa eta Bizkaiako dantzak, baina baita ere Nafarroako beste batzuk ere.

**Zein da zure dantzaririk gogokoena?**

Murua bergararra.

**Urtean zehar zenbat aldiz dantzatzen duzue jende aurrean?**

6 edo 7 aldiz.

**Noiz eta non izaten dira entsaiuak?**

Larunbatean goizeko hamabietan frontoi zaharrea.

**Zer egin behar da dantza taldean sartzeko?**

Entsaiu batetara joan eta izena ematearekin nahikoa da.

**Dantzaz gain, zertan erabiltzen duzu zure denbora?**

Ikasketak, futbola, skia, bizikleta ...

**Zein aldaketa egingo zenuke alkatea bazina?**

Hamalau urtetik gorako gazteentzat altibitate gehiago jarriko nituzke, ez bait dago ezer.



Cuenta Joven  
 de Caja Laboral  
 El servicio  
 más completo.

**Euskadiko Kutxaren  
 Kontu Gaztea.  
 Zerbitzuetan  
 osatuena.**

  
**CAJA LABORAL**  
 EUSKADIKO KUTXA



  
**LENIZ**  
 ESKORIATZA

Aingeru Ibiltokia, z/g.  
 Tfnoa.: 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA  
**REPARACIONES LENIZ, C.B.**



## EUSKALTEGIKO NAGUSIEN TALDEA

Eskoriatzako euskaltegian talde berri bat sortu da, jende helduaz konposatua. Talde hau sortzeko jende kopuru minimo bat behar zen eta azkenean hamar-hamabi bat pertsonak eman dute beren izena. Hemendikan bultzada bat eman nahi diegu euskara ez dakiten heldu guztiei: Euskal Herria euskaldundu beharra dago eta asteen hirulau bat ordu lan horretan ematea ez da batere gogorra. Gogoaz hartuta euskara ikastea baino gauza politagorik ez dago. Beren izena eman duten guztiei aupadatxo bat eta oraindik euskara ez dakitenei bihar bertan euskaltegian ikusi nahi ditugula esan nahi diegu.



## GATZAGAKO SAN MILLANAK

Urtero bezala, San Millan eguneko artesautza feria ospatu da aurten ere Gatzagan. Bertan Euskal Herriko artesautzaren lanak ikusi eta erosi ahal izan ditugu, talo, txistorra eta abar dastatzeaz gain. Nahiz eta eguraldia lagun ez izan, jende ugari hurbildu zen artesauen lanak mirestera. Denetarik egon zen ikusteekeo: larruaz egindakoak, egurrezkoak, harrizkoak, ... baita artilez egindako txapel politak era.

Kotxea uzteko momentuan, aurten Dorletan jarri dute aparkalekua antolatzaileek, bertatik herriraino gora eta behera bost minututik behin autobustxo bat zebilelarik. Horrela kotxeen ilarak ekiditu izan ahal dira.

## BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETA

Joan den azaroaren 10ean Behobia-Donostia lasterketa ospetsua ospatu zen. Lasterketa honetan aurten ere egon dira eskoriatzarrak. Hauexek ditugu 20 kmtako lasterketa bukatzea lortu zutenen marka eta postuak. Zorionak denoi!

Postua	Izena	Denbora	Jaiotze urtea	Dortsala
187	Antonio Lopez Ruiz	1:14:05	1961	1476
707	Jesus Ezkibel Larrañaga	1:20:39	1936	1477
1123	Jesus M <sup>a</sup> Beloki Oxinaga	1:24:01	1961	1474
3154	Isidro Bueno Martinez	1:34:48	1961	3503
3855	Sergio Romero Sainz	1:37:43	1979	3425
3901	Unai Beitia Gamba	1:37:52	1979	3426
8923	Jose Mari Nazabal Zubizarreta	2:13:12	1967	7372

Gainera, Jesus Ezkibel bere kategorian lehena izan zela aipatu behar da. Zorionak bigarren aldiz berarentzat.





## UDAZKEN KULTURALA

### IPUIN KONTAKETA

Azaroak 9 larunbata, Eskoriatzan ipuin kontaketa egon zen, 3-10 urte bitarteko haurrei zuzendua, goi batxilergoko ikasleek emana. Ekintza hau, Eskoriatzako hiru auzotan eta hiru elizatan burutu zen; hala nola, Dorletan, San Pedron, Eduardo Gorosarrin, Bolibarren, Apotzan eta Zarimutzen.

Ipuinak kontatzeari lau terdirak aldera ekin zitzaion eta ondoren haur guztiak plazan bildu ziren txokolatea hartzeko. Ipuin kontaketa antolaketa *ALMEN* ikastolaren kargu egon zen, bertako irakasle eta guraso ugari mugitu zirelarik dena ondo irten zedin. Argazkian ageri diren ipuin kontalari gazte hauei eskertu behar zaie egoniko lana, emanaldi hau beraien lehen esperientzia izan bait zen.



### DIPOSITIBA EMANALDIAK

Euskararen astearen barruan diapositiba emanaldiak izan genituen hilaren 11 eta 13an.

Astelehenean Gipuzkoako "GR" eta "PR" bideei buruzko diaporama interesgarria ikusi ahal izan genuen. Luis I. Gonzalezek antxinakoek erabilitako bidezidorrak nola barriztu diren eta Gipuzkoan nondik nora doazen erakutsi zigun emanaldi honetan.

Asteazkenean, Eskoriatzako Aitor Kortazarrek Guatemalara egin barri duten bidaia esplikatu zigun.



Aurtengo Irailean egon dira bertan eta diapositiba emanaldian ikusi genuenez merezi du bai hara joateak.

Bidaian zehar Txiapas aldean ere ibili eiziren.

Astelehenean 15 bat lagun hurbildu ginen kultur etxera.



Asteazkenean berriz aretoa bete egon ginen. Urtero legez herrikoon ibilaldiek kanpotik ekarritakoek baino interes haundiagoa pizten dutela ikusten da. Pozgarria ez?

### MENDI IRTEERA

Azaroak 3 eta 10 an Luis Eceiza Ikastetxeak antolaturik Xoxote eta Erlo mentietara irteerak izan genituen. Argazkian ikus daitekeena Erlo mendia da, eta agerian dagoenez ez zuten oso eguraldi ona eduki. Hala ere, oso ibilaldi polita egin zutela esan digute bertan egon zirenek.

## IRENE-NA

Tfnoa.: 715078

AHALEGINTZEN GARA

## MIRENTXU TABERNA

Tfnoa.: 714167

Kafe goxoa hartzeko

Pub CIPRI'S

Behin etorri  
Eta baietz berriz...





**TAPIA ETA LETURIA BAND**

Azaroak 15 ostirala, Tapia eta Leturia Band kontzertua egon zen Eskoriatzako frontoian. Nahiz eta taldeko partaideak oso animatuta azaldu, ezin esan gauza bera jendearen partaidetzaz, izan ere oso jende gutxi azaldu bait zen bertara. Ea hurrengoan animatzen garen!

**TAKOLO PIRRITX ETA PORROTX**

Dudarik barik Euskararen Asteko ekitaldirik jendetsuena izan da aurten bere Takolo Pirritx eta Porrotx pailasoena. Azaroaren 16an Eskoriatzako pilotalekua ume eta gaztetxo betea zen. Hasiera batean frontoian izugarritzko hotza egiten zuten arren, bertara joandako gazteen oihuek laster berotu zuten giroa, pailasoekin bat egin eta beraien kantuak abestuz. Axtroki taldeko antolatzaileek esan digutenez horrelako erantzunarekin merezi eiz barrero ere antzeko ekitaldiak antolatzea.



**TXISTE AFARIA**



Azaroak 16an izan zen txiste afarian berrogei lagun inguru bildu ziren eta benetan oso giro polita egon zen. Txiste kontalaria k, Txiskolan parte harturiko bergaratar

hiru mutil izan ziren, eta jendeak ezin hobeto pasatu zuen barreari ezin eutsirik. Tarteka Gardokik hainbat pieza joaz alaitu zuen giroa eta jendea ere animatu zen dantza egitera.

**BENTA-MOTZ**

Gaztañadui kalea  
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

**HEMEN**

**ZURE**

**PUBLIZITATEA**

**TOKI ALAI**

**Taberna**

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN  
ESPEZIALIZATUA**

**TOKI EDER**

**Taberna**

Tfnoa.: 715438

**BOKADILLO, AFARIA eta  
MERIENDAK**



- Urriak 29an Eskoriatzan bizi diren 19 bosnioetatik 6 beren herrira bueltatu ziren. Bilbotik irten ziren eta beraiek agutzera Eskoriatzako udaletxeko ordezkariak, komisioko partaideak eta familiartekoak joan ziren besteak beste.  
Orain 13 bosniatar geratzen dira Eskoriatzan, beraietako 4 udaberrian joateko asmoaz direlarik.
- Eskoriatzako udaletxeak 3. Mundurako laguntzetarako erabiltzen den aurrekontuaren % 0,7 honela banatu zuen:  
1.000.000 bat Aretxabaletako Hiruatx taldearen Bukavu proiektuarentzat (gaur egun hain egoera gogorrean dagoen eskualdean eskolak sortzeko).  
1.000.000 bat Oskar Romero proiektuarentzat (El Salvador).  
300.000 pezeta Eskoriatzako Amets Bizia taldearentzat.
- Eibar-Eskoriatza bidean elbarrituendako egokitutako hiru autobus jarri ditu martxan PESAk. Gehiago ere jartzeko asmoa daukate, baina oso garestiak ziren. Holako autobus batek 28 miloi + B.E.Z. balio ditu, eta normalek, berriz, 15 miloi + B.E.Z. Gipuzkoan Donostian baizik ez daude horrelako autobusak.  
Elbarrituendako hain abantaila handia izango den proiektu honetan Gipuzkoako Diputazioak ere hartu du parte, aurrekontuaren % 40az.
- Egin Mus txapelketa gure herrian ere ospatu zen. Aurten partaidetza beste urte batzutan baino txikiagoa izan den arren (10 bikote besterik ez) bertako giroa oso alai izan zen. Eskoritzan irabazleak, Hernanin jokatu zen hurrengo fasera iragan zirenak, Errarte eta Zirilo izan ziren. Hala ere, hurrengo kanporaketan Errarte-Zigilo bikotea kanporatua izan zen, ezin izan zirelarik Bilbon Egin Egunean jolastu zen finalera heldu.
- Pasa den hilabete hontan hiru insumiso eskoriatzar Donostiako Entzutegira joan behar izan dira beraien kontra zeuden epaiketetara. Lehena Garikoitz Kortazar, urriaren hogeitabederatzian, bigarrena Luis Mari Roteta, Azaroaren 12an eta hirugarrena Iban Diaz de Gereñu, azaroaren 19an. Gari eta Ibanen kasuak Epaitegi Probintzialera bidaliak izan dira, epaituko zituen kode penala (zahar edo berria) aukeratzeari uko egin bait zioten. Luis Mari, berriz, Kode Penal zaharrarekin izan zen epaitua, sententzia hemendik denbora gutxira jasoko duelarik. Animo ba, insumiso guztiei!
- Joan den azaroaren 13an inguruko ikastetxe askok greba eta borroka eguna izan zuten soldaduzkaren eta OTAN-en aurka.  
Eskoriatzako Irakasle Eskolako ikasleak itxialdi bat egin zuten eskolan bertan insumisioaren alde eta insumisoeekin elkartasunean 14 eta 15-a bitartean. 14ko arratsaldean insumisioaren aldeko martxa bat egin zuten herrian zehar trikitilarien laguntzarekin. Itxialdian hogeitairu denda jarri ziren Irakasle Eskolako atzekaldeko zelaian. Gutxigorabehera hirurogei bat ikasle gelditu ziren itxialdian. Jarria dezatela horrela!
- Azken hilabetean Eskoriatzako artista gazteek egindako lanekin erakusketa bat zabalik egon da Kultur Etxean. Erakusketaz gain, lehiaketa bat ere bazegoen.  
Margolaritza alorrean Naiara Errasti izan da irabazlea (25.000 pezeta) eta eskulturan, berriz, Lurdes Umerez (30.000 pezeta).



**MENDI IRTEERAK:**

Abenduak 1: Zestona-Zumaia (trabesia)  
 Abenduak 22: Mugarriluzera eta ondoren babajana.  
 Abenduak 25: Turroi eguna Aitzorrotzen.

**KIROLAK:**

Abenduak 1:  
 Saskibaloia: neska juniorrak 7,15etan.  
 Abenduak 8:  
 Saskibaloia: Mutil seniorrak 5,30etan  
 Abenduak 9:  
 Saskibaloia: neska kadeteak 11etan  
 Abenduak 15:  
 Areto futbola: seniorrak 5,30etan  
 Saskibaloia: neska seniorrak 7,15etan  
 Abenduak 22:  
 Areto futbola: jubenilak 4etan  
 Saskibaloia: Mutil seniorrak 5,30etan  
 Saskibaloia: neska juniorrak 7,15etan.  
 Abenduak 23:  
 Saskibaloia: neska kadeteak 11etan

**LIBURU BERRIEN ZERRENDA**

Los hijos primero - P. Leach - Paidós  
 Hijos felices de parejas rotas - D. Francescato - Ariel  
 La princesa y los trasgos - G. MacDonald - Siruela  
 Un espía llamado Sara - B. Atxaga - Acento  
 El cartero de Neruda - A. Skármeta - Plaza.y Janés  
 Nosotras que nos queremos tanto . M. Serrano - Txalaparta  
 Pocahontas - I. y E. Pavin d'Aulaire - Olañeta  
 Los premios - E. Segal - Planeta  
 Aprendiendo de las drogas - Escotado - Anagrama  
 Los videojuegos - J.A. Estallo - Planeta  
 Plantas de interior - Messayon - Blume  
 La despensa de C. Argiñano - Espasa Calpe

**ZINE GOMENDIOAK****“EN EL NOMBRE DEL HIJO”**

IRA taldeko partaide izateagatik kartzelaratuak izan diren mutil biren amen arteko eztabaidez ari da filme hau. Ama biek pentsakera desberdian dute gertaeraren aurrean eta aukera “politiko” desberdinak, elizaren jokaera etab... ikus daitezke pelikulan zehar.

*95 ko Azaroaren 23tik Gazteizen dago eta Arrasatera oraindik ez da etorri.*

**“BAMBOLA”**

Neska baten eta bere anaia homosexualaren istorioa kontatzen du filme honek. Arazo bat dela eta, neskak amodiozko harreman “berezia” izango du.

*Erotiko bezela saldu nahi izan duten arren, oso txarra da.*

**“EL JOROBADO DE NOTREDAME”**

Walt Disneyren marrazki bizidunak. Interesgarria da gaztetxoekin egun euritsu batean arratsaldea pasatzeko.

*Gabonak bitartean honelako asko agertuko zaizkigu gazte jendearentzako.*







Orain dela 28 urte inguru Ojala Zelaiko erromerian ateratako argazkia. Ikus daitekeenez, batzuk txistu eta danbolina jotzen urte asko daramate eta dantza taldea ere ez da gaur egun sortutakoa.

Eskerretik eskuinera, Jose Ramon Zubizarreta, Eduardo Plazaola, Bittor Arrieta, Mikel Urrutia, Arrate Padilla, Juan M<sup>a</sup> Pagaldai (Trutxa), Sabino Padilla, Arregi (Izena ez dakigu), Aitor Zubizarreta, Alfredo Eraña, Jose M<sup>a</sup> Zubizarreta eta Mario Padilla.

KOMIKIA

